**La digitalización, puesta en valor y creación de la RED DE LOS SENDEROS DE ERRO** es una acción desarrollada en el marco de un proyecto de cooperación con zona Media donde los caminos son los protagonistas.

En estos últimos años el Ayuntamiento del Valle de Erro ha ido recuperando algunos de los senderos existentes en el municipio, y finalmente con el apoyo de **Cederna Garalur** y la asistencia técnica de la empresa **Ekilan** se han realizado las **fichas con la información de los senderos** así como el **trazado en GPS** de los mismos, **uniendo caminos y pueblos y ampliando hasta 26 los itinerarios existentes**, acciones llevadas a cabo en el marco del proyecto de cooperación denominado "**Por nuestros caminos**".

Los recorridos, que se inician desde cualquier localidad Erro, unen los pueblos tejiendo una "red" a lo largo del valle. Los caminos de la red tienen distinto nivel de dificultad a y tiempo de recorrido (desde 1,8 km hasta los 22 km de distancia):

| | DISTANCIA Km | TIEMPO DE RECORRIDO | Desnivel acumulado (m) | Señalizado (si) Solo Truck (no) | CICLABLE |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Sendero Aintzioa Esnotz, | 2,1 | 40m | 180 | Si | No |
| 2. Sendero Orondritz Esnotz | 2,1 | 30m | 126 | Si | No |
| 3. Sendero Aurizberri/Espinal Esnotz | 10,9 | 2h | 150 | Si | Si |
| 4. Sendero Vuelta Larrogain | 8,3 | 2h 30m | 350 | Si | No |
| 5. Sendero Loizu Aintzioa | 4,5 | 1h | 249 | Si | No |
| 6. Sendero Erro Mezkiritz | 6,3 | 1h 30m | 190 | Si | Si |
| 7. Sendero Erro Esnotz | 3,2 | 45m | 160 | Si | Si |
| 8. Sendero Mezkiritz Esnotz | 5,4 | 1h 20m | 220 | Si | Si |
| 9. Sendero Robledal Muskilda | 4,3 | 50m | 100 | Si | Si |
| 10. Camino Erro Zilbeti | 5,9 | 1h 20m | 171 | Si | Si |
| 11. Camino Erro Lintzoain | 3,5 | 50m | 172 | Si | Si |
| 12. Antiguo Camino Urepel | 22,0 | 5h | 700 | No | No |
| 13. Ruta Megalítica Sorogain | 9,2 | 2h 20m | 260 | Si | No |
| 14. Sendero Hayedo Sorogain | 1,8 | 40m | 60 | Si | No |
| 15. Sendero Camino del Fuerte | 4,7 | 1h 30m | 170 | Si | No |
| 16. Sendero Altos Errebelu | 3,5 | 1h | 125 | Si | Si |
| 17. Ascensión Tiratun Mearondo | 5,1 | 1h 30m | 465 | No | No |
| 18. Sendero Línea Pirineo | 5,7 | 1h 40m | 200 | Si | No |
| 19. Ascensión Adi | 5 | 1h 45m | 635 | Parcial | No |
| 20. Sendero Ardaitz Aintzioa | 6,1 | 1h 45m | 390 | Si | No |
| 21. Sendero Loizu Ardaitz | 8,4 | 2h 15m | 400 | Si | No |
| 22. Ascensión Iturrunburu | 4,8 | 1h 30m | 490 | No | No |
| 23. Sendero Zilbeti Tiratun | 5,1 | 1h 20m | 510 | No | No |
| 24. Sendero Lintzoain Mezkiritz | 4,8 | 1h 10m | 50 | Si | Si |
| 25. Sendero Zilbeti Sorogain | 7,9 | 2h 15m | 410 | No | No |
| 26. Sendero Aurizberri/Espinal Mezkiritz | 2,9 | 40m | 160 | No | No |

Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

En el municipio de Erro existen muchos más senderos, por lo que esta red puede seguir ampliándose y uniendo caminos con otros valles y pueblos vecinos de uno y otro lado de la muga. Hoy tenemos un doble reto, darlos a conocer pero a la vez seguir esforzándonos para poder mantenerlos y aprovecharlos para nuestro uso cotidiano, para unir pueblos y gentes. Tampoco debemos olvidar que son estratégicos y un atractivo más para que conozcan y visiten el valle de Erro, y además son en sí un recurso a partir del cual podemos crear productos turísticos sostenibles con visión de presente y futuro..

Este es un paso más para ir tejiendo una red de trabajo y de caminos entre nuestros pueblos que nos ayuden a ir de unos a otros y crear en torno a ellos dinámicas y propuestas de recuperación, mantenimiento y disfrute. No hay que olvidar que por ejemplo en Navarra, tenemos grandes caminos como el Camino de Santiago, las Cañadas Reales o las Vías Verdes, que son "ejes vertebradores principales" que a modo de "autopistas naturales" sirvan para interconectar otras redes locales de caminos, como la del Valle de Erro.

Precisamente, con el objetivo de interconectar redes de caminos locales a través de la Montaña y la zona media de Navarra, **Cederna Garalur** y la **Asociación para el Desarrollo de la Zona Media** pusieron en marcha a principios del año 2013 el proyecto "**Por nuestros caminos**", y que cuenta con el apoyo y la financiación de Gobierno de Navarra y de la Unión Europea a través del Programa PDR Montaña de Navarra 2007-2013.

**Más información sobre las rutas y sobre el proyecto:**

- **Ayuntamiento del Valle de Erro**: www.erroibar.net/turismo/punto-de-informacion/
- **Descripción de las rutas, trazado en GPX**: http://www.misescapadaspornavarra.com/listado-zonas.html (Buscar "*PIRINEO OCCIDENTAL (I)*")
- **Wikiloc:** http://es.wikiloc.com/wikiloc/find.do?t=&d=&lfr=&lto=&src=&act=&q=cedernagaralur
- Por nuestros caminos de la Montaña: http://www.youtube.com/watch?v=tL5VathCC9Q

**ERROIBARKO BIDEXKEN SAREA digitalizatzea, balioa ematea eta aipatu sarea sortzea** Nafarroako Erdialdeko zonaldearekin landutako lankidetza-proiektu baten barnean landutako ekintza da, eta horretan, bideak dira protagonista.

Azken urteotan, Erroibarko Udalak udalerriko hainbat bidexka berreskuratu ditu, eta, azkenik, **Cederna Garalur Elkartearen** babesarekin, eta **Ekilan** enpresaren laguntza teknikoarekin **bidexken informazioa jasotzen duten fitxak** eta bidexka horien **GPX trazadura** landu dira. **Bideak eta herriak** lotu dira, eta zeuden ibilbideak **26ra zabaldu dira.** Ekintza horiek "**Gure bideetan barna**" izeneko lankidetza-proiektuaren barnean landu dira.

Ibilbideek, Erroibarko edozein herritatik abiatuta, herriak lotzen dituzte, ibarrean zehar 'sare' bat josiz. Sareko bideek zailtasun-maila desberdinak dituzte, eta iraupenez ere desberdinak dira (1,8 km-tik hasita, 22 km-taraino):

| | DISTANTZIA Km | IRAUPENA | Desnibela (m) | Seinaleztatua (bai) Truck besterik (ez) | TXIRRINDULAZ |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Bidexka: Aintzioa Esnotz, | 2,1 | 40m | 180 | Bai | Ez |
| 2. Bidexka: Orondritz Esnotz | 2,1 | 30m | 126 | Bai | Ez |
| 3. Bidexka: Aurizberri/Espinal Esnotz | 10,9 | 2h | 150 | Bai | Bai |
| 4.Bidexka: Larrogain | 8,3 | 2h 30m | 350 | Bai | Ez |
| 5. Bidexka: Loizu Aintzioa | 4,5 | 1h | 249 | Bai | Ez |
| 6. Bidexka: Erro Mezkiritz | 6,3 | 1h 30m | 190 | Bai | Bai |
| 7. Bidexka: Erro Esnotz | 3,2 | 45m | 160 | Bai | Bai |
| 8. Bidexka: Mezkiritz Esnotz | 5,4 | 1h 20m | 220 | Bai | Bai |
| 9.Bidexka: Muskildako hariztia | 4,3 | 50m | 100 | Bai | Bai |
| 10. Bidea: Erro Zilbeti | 5,9 | 1h 20m | 171 | Bai | Bai |
| 11. Bidea: Erro Lintzoain | 3,5 | 50m | 172 | Bai | Bai |
| 12. Urepelbide zaharra | 22,0 | 5h | 700 | Ez | Ez |
| 13. Sorogaingo ibilbide megalitikoa | 9,2 | 2h 20m | 260 | Bai | Ez |
| 14. Bidexka: Sorogaingo pagadia | 1,8 | 40m | 60 | Bai | Ez |
| 15.Bidexka: Gotorlekuko bidea | 4,7 | 1h 30m | 170 | Bai | Ez |
| 16.Bidexka: Errebeluko gaina | 3,5 | 1h | 125 | Bai | Bai |
| 17. Igoera: Tiratun Mearondo | 5,1 | 1h 30m | 465 | Ez | Ez |
| 18. Bidexka: Línea Pirineo | 5,7 | 1h 40m | 200 | Bai | Ez |
| 19. Igoera Adi | 5 | 1h 45m | 635 | Partzial | Ez |
| 20. Bidexka: Ardaitz Aintzioa | 6,1 | 1h 45m | 390 | Bai | Ez |
| 21. Bidexka: Loizu Ardaitz | 8,4 | 2h 15m | 400 | Bai | Ez |
| 22. Igoera: Iturrunburu | 4,8 | 1h 30m | 490 | Ez | Ez |
| 23. Bidexka: Zilbeti TiratunBidexka: | 5,1 | 1h 20m | 510 | Ez | Ez |
| 24.Bidexka: Lintzoain Mezkiritz | 4,8 | 1h 10m | 50 | Bai | Bai |
| 25. Bidexka: Zilbeti Sorogain | 7,9 | 2h 15m | 410 | Ez | Ez |
| 26. Bidexka: Aurizberri/Espinal Mezkiritz | 2,9 | 40m | 160 | Ez | Ez |

Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

Erro udalerrian bidexka gehiago daude, horrexegatik sare horrek mugaz bi aldeetako beste ibar eta herri mugakideekin bideak zabaltzen eta lotzen jarrai dezake. Gaurko erronka bikoitza da; batetik, sarea ezagutzera ematea, eta, bestetik, ahalegintzen jarraitzea bidexka horiei eutsi ahal izateko, eta gure eguneroko erabilpenetarako baliatu ahal izateko; hau da, herriak eta jendea elkartzeko. Ez dugu ahantzi behar, halaber estrategikoak direla eta jendea erakarri ahal dutela Erroibar ezagutu eta bisitan etortzeko. Horrez gain, berez, baliabide bat dira, eta hortik abiatuta, orainari eta etorkizunari begirako turismo-produktu jasangarriak sor ditzakegu.

Gure herrien artean lan-sare bat eta bide-sare bat egituratzen joateko beste urrats bat da, batetik bestera joaten, eta horien inguruan herriak berreskuratzeko, mantentzeko eta horiez gozatzeko dinamikak eta proposamenak sortzen lagunduko diguna. Ez dugu ahaztu behar Nafarroan, esate baterako, bide handiak ditugula; besteak beste, Donejakue bidea, errege-altxonbideak nahiz natura-bideak. Horiek, "ardatz egituratzaile" nagusiak dira, "natura-autopistak" bailiran, beste tokiko sare batzuekin (Erroibarkoa, kasu) lotzeko baliagarriak.

Hain zuzen ere, Mendialdea eta Nafarroako Erdialdea zeharkatzen duten tokiko bide-sareak elkarri lotzeari begira, **Cederna Garalur Elkarteak** eta **Nafarroako Erdialdearen garapenerako elkarteak** 2013an "**Gure bideetan barna**" izeneko proiektua abiarazi zuten. Aipatu proiektuak Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren babesa eta finantziazioa ditu, 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programaren bidez.

**Ibilbideei eta proiektuari buruzko informazio gehiago:**

- **Erroibarko Udala:** www.erroibar.net/turismo/punto-de-informacion/
- **Ibilbideen deskribapena, GPXn trazatuta:** http://www.misescapadaspornavarra.com/listado-zonas.html (Bilatu "*PIRINEO OCCIDENTAL (I)*")
- **Wikiloc:** http://es.wikiloc.com/wikiloc/find.do?t=&d=&lfr=&lto=&src=&act=&q=cedernagaralur
- **Mendialdeko bideetan barna**: http://www.youtube.com/watch?v=tL5VathCC9Q